

Gai honi buruz, bi aipamen itzuliko ditut. Hona lehendabizikoa:

«Herriaren opioa da musika. Burmuinak, hartara ohitzen denean, guti barru funtzionaketa normala galdu egiten du, elkorra bilakatzen da eta gizonak bere seriotasuna galdu egiten du. Ezgauza eta parasittoa bilakatzen da».

Hona bigarrena:

«Musika-mota berri baten sartzetik babestu beharra dago... Ezin daitezke musika-modu batzuk aldatu Estatuaren oinarriko legeak itzulipurdikatu gabe».

Igarkizun bezala aurkeztu ditugu bi esaldiok. Zein da Khomeinirena? Eta zeinena da bestea?

Gehiago luzatu gabe, irakurle presatuarentzat, eman dezagun erantzuna.

Lehenengo esaldia, Khomeinirena da, bai. Eta bigarrena, Platonena, ez gehiago eta ez gutiago, Platon filosofo handiarena bera, Errepublikaren IV liburuan agertzen dena.

Khomeini eta Platon elkarrekin? Nola eta zergatik? Biak utopistak direlako ote? ■ *Joanes Lekerika.*

CIEMENen IV. ihardunaldiak

Abuztuaren 16tik 23ra egin ditu CIEMENek (Gutxiengo Etniko eta Nazionalen aldeko Escarré Institutuak) bere urteroko Ihardunaldiak. Laugarren aldizkoak izan dira aurtengoak. Eta, orain artekoak bezala, Cuixà-n (Ipar Katalunian) ospatu dira.

Bestelako ekintza garrantzizkoak aurrera eramán izan ditu CIEMEN-ek: Gutxiengo Nazionalen Zinemaren astealdia (Val d'Aosta-n), Nazionalitateen kantaldia (Mallorca-n), Gutxiengo etnikoei buruzko Ihardunaldi italo-katalanak (Bartzelonan), etab. aipatzekoak dira aurten. Baina bereziki aipatzekoa da Firenze-n eratu duen Miro-ren erakustaldia: lau hilabetez iraun du; eta erakustaldiaren inguruan Kultura katalanaren beste hainbat arlo aurkeztu ahal izan dira: kanta, dantza, hitzaldiak, etab. Arrakasta handia izan du guzti honek Firenze-n. Nabarmentzekoak dira CIEMEN-ek ematen dituen argitalpenak ere: bereziki, CIEMEN izeneko aldizkaria (hiruhilabeteak) eta «Nationalia» liburu saila. Argitaratu berria du, hain zuzen ere, sail honen laugarren liburukia, ihazko udako Ihardunaldietako hitzaldiak biltzen dituen: «Zenbait Estatu ezberdineko Autonomi moduak». País Valencià, Catalunya Principat, Illes Balears, Euskadi, Friül, Wales, Wallonie, Jura, Iugoslaviako Errepublikak, Quebec: guzti hauek dute kapitulu bana. Katalana, gaztelania, ingelesa, italiarra eta frantsesa erabili dira liburu honetan, hizkuntza bezala.

Aurtengo Ihardunaldietako gaia zera izan da: «Naziotasuna: Hizkuntza, lurraldea, migrazioak». Nazio(nalitate) hauetatik aurkeztu da arazoa: Flandres, Euskal Herria, Britania, Okzitania, Països Catalans, Galizia, País Valencià-tik. Partehartzaileetatik, gehienak katalanak izan dira, baina ba ziren friuldarrek, Valdostanoak, waloniarrak, Korsikarrak, etab. ere.

Herri bakoitzak bere egun berezia izan zuen; baita Euskal Herriak ere. Joan Mari Torrealdayk aurkeztu zuen gaia, batez ere soziologiaren aldetik begiraturaz. Datu ugari ere eman zuen, gaiaren hiru alderdiak (hizkuntza, lurralde, emigratio-inmigrazioak) argitze-ko. Hizlariak ganera, Paulo Agirrebaltzategik ere parte hartu zuen astealdi osoan. Euskal Herriaren egunean bereziki parte hartu zuen Luis Núñez-ek ere. Jokin Apalategi eta Maite Idirin ere egun batez han izan ziren. Euskaldunen partehartzea nahiko egokia izan da aurten; ba zen besterik ere, hara joan nahi zuenik; baina azken unean ezinezkoa gertatu zaie nonbait.

Aurtengo gaia oso zabala zen. Eta hizlari gehienek alderdi bat bakarra azaldu zuten: hizkuntzarena batez ere. Emigratio-inmigrazioen arazoa batez ere oso albotik ikutu zuten ia denek, edota inola ere ikutu gabe utzi zuten. Euskal Herriko azalpenak sakondu zuen gehien alderdi hau.

Ikuspegi eta metodo aldetik ere oso ezberdinak izan ziren azalpenak: batzu historikoak, beste batzu soziologikoak, besteren bat gogoeta literariotan luzatu zen gehienbat, datuak eman beharrean. Alde honetatik ere sakabanatze handiegia izan zen.

Egun bakoitzean, zegokion Herriari buruz elkarrizketa luzeak izaten ziren; eta beste herrietako guztiek parte hartzen zuten. Hala ere, gaiaren aldetiko eta azalpenen aldetiko sakabanatze horregatik, herri ezberdinetako egoera-dinamikak elkarrekin alderatzeko aukera txikia izan zen.

Akats hauek eta guzti, Ihardunaldiak oso interesgarriak gertatu dira, Nazio ukatuen egoera-dinamikak ezagutzeko, hor lanean dabilen hainbat lagun eta militanterekin harremanak egiteko eta etorkizunean elkarrekiko lana abiatzeko.

Hain zuzen ere, Ihardunaldien ekikortasuna edo operatibitatea da lagun askoren kezkarik nagusiena. Elkarren egoera-dinamikak ezagutzetik, arazoan ezagutza hartzetik, Herri zapalduen arteko koordinazio eta elkarlanari heldu beharra dagoela ikusten: Kultura mailan eta politika mailan bereziki. Horretarako aurrera doazen proiektu batzu azaldu ere egin ziren.

Kezka horiek bultzaturik, CIEMENek berak ere, gai horixe aukeratu du datorren udako Ihardunaldietarako: «Herri (nazio) ukatuen arteko elkarlan bideak» halegia.

Bukatzeko, esan beharra dago, CIEMENen barruan Euskal Herriari buruz asmo garrantzizko bat ba dela, datorren urterako. Hau da, aurten Miro-ren eta Kataluniaren inguruan egin den bezala,

datorren urtean gauza beretsua antolatu nahi da Firenze-n Euskal Artisten, Euskal Kulturaren eta Euskal Herriaren inguruan. ■ *Paulo Agirrebaltzategi*.

Jokin Zaitegi hil zaigu

Aldizkariaren zenbaki honen azken egitekoak burutzen ari zirela heldu zaigu Jokin Zaitegi jaunaren heriotze albistea (Oñati, 1979-abuztua-17). Goian bego, urtetan eta bere bizitza osoan euskararen alde hainbeste lan egin duen gizona.

Dirudienez, euskal kultur-langile gazteenek gehiegi ezagutu ez badute ere, asko gara geure buruak haren zordun aitortzen ditugunak.

Hiru alorretan joan da, bereziki, Zaitegiren lana: 1) olerkian, 2) grekotiko euskal itzulpenetan, eta 3) «Euzko Gogoa» sortu eta aldizkariaren gorabehera guztiak gidatzen (1950-1960). Jokin Zaitegiren lana gaitza izan da, ez luma langilea izan zuelako bakarrik, baita, bere eta askoren lanak kaleratzeko, dirutan eman zituenez izardiengatik ere.

Haren idazlanik ezagunenak hauetxek ditugu, han-hemenka sakabanaturik dauden idaztiño eta artikuluak jaso gabe:

1945, Guatemala: Longfellow-ren *Ebangeline*.

1946, México: *Goldaketan*. Olertia.

México: *Sopokelen Antzerkiak* (I).

1955, Zarautz: *Bidalier Eginak*.

1958, Baiona: *Sopokelen Antzerkiak* (II).

1962, Donostia: *Platoneneko Atarian*.

Guatemala: *Berriz ere goldaketan*. Olertia.

1963, Donostia (Egan): Euripides-en *Medeia*.

1975, Arrasate: *Platon* (I): *Oturuntza, Protagora, Menon*.

1977, Arrasate: *Platon* (II): *Gorgia*.

1978, Arrasate: *Platon* (III): *Eufitron eta Sokrateren apologia*.

Arrasate: *Platon* (IV): *Kriton eta Faidon*.

1979, Arrasate: *Platon* (V): *Ipia txikia eta Alkibiada*.

Ongi irabaziak ditu Jokin Zaitegik euskaltzaleon oroitzapena eta eskerrona. Hurrengo zenbakian emango dugu Zaitegiren zenbait lanen berri zehatzago bat. ■ *Joseba Intxausti*.

Hiru kultur gizon gutiago: Oñatibia, Zaitegi, Zarate

Hiru gizon galdu ditugu azken hilabeteotan, hiru euskaltzale, hiru kultur gizon. Euskararen alde bere bizia eman dute hirurek.